



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

PROFESIONALEK BULTZATUTAKO PROIEKTUAK ONARTZEKO ETA EBALUATZEKO OINARRIAK (BOTTOM-UP)

2027ko PROGRAMA-KONTRATUA (PK2027)

2026-8-31



ÍNDICE

1. Sarrera.....	1
2. Proiektuen definizioa, garapen-eremua eta onartzeko/baztertze irizpideak	1
2.1 Definizioa	1
2.2 Proiektuen garapen-eremua.....	2
2.3 Onartzeko eta baztertze irizpideak:.....	2
2.3.1. Onartzeko irizpideak	2
2.3.2. Baztertze irizpideak.....	2
3. Eskabideak aurkeztea, proiektuak onartzea, baloratzea eta lehenestea/ponderatzea	3
3.1 Aurkezpena	3
3.2 Eskabideen onarpena	3
3.3 Eskatutako proiektuen balorazioa eta onarpena.....	4
4. Asistentzia-erakunde eskatzailearen eta proiektuko taldearen betebeharrak eta konpromisoak	7
5. Egindako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa	7
6. Proiektuen balioa Programa-Kontratuan.....	8
7. Ez betetzeak	8

1. Sarrera

Profesionalek bultzatutako proiektuak (Bottom-Up, BU) programa-kontratuaren (PK) kalitate-eranskineko ebaluazio-ereduaren ataletako bat dira. Jardunbide egokiak hedatzeko eta osasun-sare osora zabal daitezkeen hobekuntzak ekartzeko abiapuntu izan nahi dute.

Dokumentu honek 2027 Kontratu-Programarako (PK2027) Bottom-Up proiektuen deialdiaren oinarriak jasotzen ditu. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritzek egin dute, modu koordinatuan.

2. Proiektuen definizioa, garapen-eremua eta onartzeko/baztertze irizpideak

2.1 Definizioa

- a) Bottom-Up proiektuen helburua profesionalak beraiek sortutako hobekuntza-proiektuak bultzatzea da. Jardunbide egokiak, pazienteei eta erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzeko ekimenak eta beste erakunde batzuetan jada garatutako ekimenak barne hartzen dituzte, betiere Osasun Sailaren eta Osakidetzaaren helburu estrategikoekin lerrokatuta badaude eta antolaketa eta diseinu egokiak badituzte. Ahal dela, proiektuek beste eremu edo erakunde batzuetara hedatzeko aukera izango dute.
- b) Proiektuetan arduradun edo koordinatzaile bat egongo da, konpromisoak betetzen direla zaintzeko (ekintzak, kronograma eta azken ebaluazioa).
- c) Osasun Sailak aukeratu ahal izango ditu argi eta garbi frogatutako eraginkortasuna duten profesionalak bultzatutako proiektuak, baldin eta beste osasun-erakunde batzuetara hedatzeko modukoak badira. Horretarako, Sailak jarraibide zehatz eta homogeenak ezarriko ditu.
- d) Interesgarritzat jotzen diren proiektuak, halaber, kalitate-adierazle gisa aplikatu ahal izango dira ondorengo programa-kontratuetan.

2.2 Proiektuen garapen-eremua

Proiektuen helburuek lotuta egon beharko dute 2030erako Osasun Planaren helburu orokorrekin, Osasun Sailaren eta Osakidetzaaren ildo estrategikoekin eta EAEko Osasun Itun berriaren sei eremuekin:

- I. Osasunaren sustapena eta prebentzioa
- II. Gaixotasunaren arreta
- III. Osasunaren arloko lehentasuneko ildoak
- IV. Kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna
- V. Osasunaren arloko profesionalen garapena
- VI. Gobernantza

2.3 Onartzeko eta baztertzeko irizpideak:

2.3.1. Onartzeko irizpideak

Aurkeztutako proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Aipatutako lerroetakoren bati lotuta egotea.
- b) Eskabide-inprimakia behar bezala beteta aurkeztea.
- c) Dagokion asistentzia-erakundeko Gerentziak edo Zuzendaritza Medikoak eta proiektuaren arduradunak sinatuta, sinadura digitalarekin, eta onartuta egotea.
- d) Azterlanaren egokitasuna eta egingarritasuna justifikatuta egotea.

2.3.2. Baztertzeko irizpideak

Kanpoan geratuko dira honako proiektu hauek:

- a) Ezarritako gutxieneko puntuazioa (bost puntu) lortzen ez duten proiektuak.
- b) Ikerketa klinikoko proiektuak.
- c) Prestakuntza-planak.
- d) Osatu edo behar bezala bete ez diren eskabide-inprimakiak.
- e) Dagokion osasun-erakundeko Gerentziak edo Zuzendaritza Medikoak sinatu gabeko eta baimendu gabeko proiektuak.
- f) Programa-kontratuaren kalitate-eranskineko adierazle batean jasota dauden proiektuak, horri ezer gehitu gabe. Nolanahi ere, ukatu baino lehen, erakundeei aukera emango zaie sartu izana justifika dezaten.



- g) Aurreko deialdietan garatu diren amaitutako proiektuak, beste erakunde batzuetara hedatzen ez badira, edo helburuak edo ekintza berriak zabaltzea planteatzen ez badute.
- h) Zerbitzu baten ohiko jardueretarako finantzaketa eskatzen duten proiektuak.
- i) Egoiliarren prestakuntza gainbegiratzearekin lotutako proiektuak.
- j) % 100ean beste bide batetik finantzatutako proiektuak.
- k) Beste erakunde batzuen lankidetzak eskatzen duten proiektuak, haien adostasunik gabe.

Eskabideak jaso ondoren, proiektu batek ez baditu deskribatutako irizpideak betetzen, Osasuneko Lurralde Ordezkaritzak horren berri emango die proiektuaren arduradunei, eta 10 eguneko epea emango die akatsak zuzentzeko edo beste proiektu batekin ordezkatzeko.

3. Eskabideak aurkeztea, proiektuak onartzea, baloratzea eta lehenestea/ponderatzea

3.1 Aurkezpena

Eskabideak aurkezteko epea **2026ko irailaren 14tik urriaren 31ra** artekoa izango da.

- a) Eskaerak egiteko, propio diseinatu den eskabide-orria bete beharko da eta Osasun Ordezkaritzara bidaliko dira, **posta elektronikoz**.
- b) Eskabidearekin batera eskuduna den Etika Batzordearen baimena aurkeztuko da, diseinuak hala behar badu.

3.2 Eskabideen onarpena

Eskabideak onartuak izateko erakundeek honako hau bete beharko dute:

- a) Dagokion eskabide-inprimakia osorik betetzea: formulario osoa proiektu berrien kasuan, eta formulario laburtua aurreko deialdietan onartutako jarraipenezko proiektuen kasuan.
- b) 2.3 atalean jasotako irizpide guztiak betetzea.
- c) Ez da onartuko epea kanpo aurkeztutako proiekturik.
- d) Eskatutako zuzenketak epearen barruan aurkeztea.
- e) Urtebeteko epean garatzeko proiektuak planteatzea (ahal dela, urtarritetik abendura, programa-kontratuaren ebaluazio-aldiarekin bat etorriz).
Hala ere, iraupen luzeagoko proiektuak onartu ahal izango dira, gehienez bi urtekoak, baldin eta justifikatuta badaude. Proiektu horiek urteroko

deialdietan aurkeztu behar dira, bigarren urterako dagokion inprimaki laburtua erabiliz; aurkezpen horretan aldi berrirako plana zehaztu beharko da (helburuak, aurreikusitako jarduerak, egutegia, jarraipen-adierazleak eta espero diren emaitzak), jatorriz onartutako proiektuarekiko desbideratzeak edo aldaketak barne. Aurreko deialdian urtebeteko iraupenarekin aurkeztutako proiektuak ezin dira jarraipen-proiektutzat hartu.

f) Metodologiak honako atal hauek jaso beharko ditu:

- **Aztertutako biztanleria:** Azterlanean aztertutako interes-taldea da, eta lekuaren, denboraren eta hautaketa-irizpideen arabera definitu da.
- **Diseinua:** Zeharkakoa/luzetarakoa, deskriptiboa/analitikoa, behaketakoa/esperimentala, prospektiboa/atzera begirakoa; laginaren tamaina, analisi-mota deskribatzaile/prediktibo/inferentzial.
- **Aldagaiak:** Faktore neurgarriak, azterketarako garrantzitsuak (mendekoak/independienteak, kualitatiboas/kuantitatiboas etab.).
- **Datu-bilketa:** Oinarrizko datuen iturriak (inkestak, elkarriketak, behaketak), bigarren mailako datuen iturriak (errolda, historia klinikoa, ospitaleko altak, etab.), neurketa-tresnak erabili diren eta bilketaren iraupena deskribatuko dira.
- **Genero-ikuspegia:** Genero-ikuspegia barneratzen duen proiektu batek diagnostiko bat egin behar du, osasunean 6 desberdintasunak sor ditzaketen emakumeen, gizonen eta haurren egoerak, rolak, beharrak eta interesak aztertuz, desberdintasun horiek desagerrarazteko edo murrizteko neurriak ipintzeko eta ekintzak burutzeko helburuarekin.
- **Ikuspegi sozioekonomikoa:** Ikuspegi sozioekonomikoa barne hartzen duen proiektu batek gizarte-baldintzatzaileen ikuspegia jasoko du (diru-sarreraren maila, bizilekua, etnia, adina, ikasketamaila, klase soziala, etab.), osasun-arloko desberdintasunak saihesteko edo murrizten saiatzeko helburuaz.
- **Emaitzen analisia:** Egindako analisi estatistikoa eta erabilitako programa azaldu beharko ditu.

3.3 Eskatutako proiektuen balorazioa eta onarpena

- a) Eskatutako proiektuak aurkezpen-aldia amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean (2026ko abenduaren 1a baino lehen) ebaluatuko dira, eta onartu edo baztertu egingo dira.



- b) Osasun Ordezkaritzako Plangintza, Ikerketa eta Ebaluazioko zerbitzua arduratuko da proiektuak ebaluatu eta onartzeaz. Talde tekniko batek binakako berrikuspenaren bidez ebaluatuko ditu inklusio-irizpideak betetzen dituzten eskabideak.
- c) Proiektuan aldaketak egitea proposatu ahalko die balorazio lantaldeak parte hartzaileei, proiektua onartua izan dadin.
- d) Proiektu bat onartzeko, gutxienez 10 puntutik 5 lortu beharko dira.
- e) Eskabideen ebazpena zerbitzu-erakundeko gerentzia eta/edo zuzendaritza medikoei jakinaraziko zaie, eta horiek proiektuaren arduradunari jakinaraziko diote.
- f) Onartutako proiektuak PK2027an sartuko dira.
- g) PKren II. eranskinean esleitutako puntu maximoak eskuratu ahal izateko, erakundeek honako hauek egin beharko dituzte:
 - (I) Gutxienez 2 proiektu: osasun mentaleko sareak, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak eta Arabako Errioxako ESI.
 - (II) Gutxienez 3 proiektu ESItan: Debagoiena, Debarrena, Bidasoa, Tolosaldea, Goierri-Urola Garaia, Uribe eta Barakaldo-Sestao.
 - (III) Gutxienez 4 proiektu ESItan: Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetan, Donostialdea, Bilbo-Basurtu, Barrualde-Galdakao eta Araba.

Proiektu gutxiago aurkeztuz gero, proportzionalki murriztuko dira esleitutako puntuak.

Onartutako proiektu bat gauzatu ezin bada eta egoera hori gauzatze-aldiaren hasieran antzematen bada, erakundeak beste proiektu batekin ordezteko eskaera egin dezake; betiere arrazoituta eta jatorrizko proiektua gauzatzearen ezintasunak eragozten badu PK-aren II. eranskinean zehaztutako gehieneko puntuazioa lortzeko eskatzen den gutxienerako proiektu-kopurua betetzea. Eskaerarekin batera eskabide orri berri bat aurkeztu beharko da. Ordezkapena eskatzeko gehieneko epea, dagokion urteko otsaileko azken eguna izango da.

- h) Erakunde bakoitzeko gehieneko 8 proiektu onartuko dira.
- i) Ebaluazio-irizpideak 1. Taulan ezarritakoak izango dira.

1. Taula. Aurkeztutako proiektuak baloratzeko irizpideak:



Balorazio irizpideak	Neurketa	Puntuak
Inplikaturako asistentzia-mailen kopurua: (gehienez 2 puntu)	2 maila	1
- Lehen mailako arreta - Arreta espezializatua - Osasun Mentaleko Sarea - Egonaldi ertaina/luzea - Osasun publikoa - Eremu soziosanitarioa	3 maila edo gehiago	2
Emaitzen erabilera praktikoa (gehienez 3 puntu)	Erakundean, profesionalengan eta/edo osasun sisteman	1
	Osasunean emaitzak (paziente edo familietan)	2
Proiektuaren kalitatea (gehienez 4 puntu)	Helburuak	0,6
	Metodología	1
	Lotutako ekintzak eta adierazleak	1,4
	Genero-ikuspegia	0,5
	Ikuspegi sozioekonomikoa	0,5
Hedapenaren egingarritasuna (gehienez puntu 1)		1
Guztira		10
Pazienteek/herritarrek proiektuaren lanketan eta garapenean parte hartzea (puntu gehigarri 1)*		1

* Gehieneko puntuazioa, edozein kasutan 10 puntu izango da.



4. Asistentzia-erakunde eskatzailearen eta proiektuko taldearen betebeharrak eta konpromisoak

- a) Asistentzia-erakunde eskatzaileak eta proiektuaren arduradunak konpromisoa hartzen dute proiektuen azken txostenak betetzeko eta lurralde-ordezkaritzara bidaltzeko. Iraupen luzeagoko proiektuen kasuan, urteko txosten bat bidaliko da baloratzeko.
- b) Erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen du, halaber, deialdia bere profesionalen artean zabaltzeko.
- c) Era berean, proiektua amaitu ondoren, erakundeak, hala eskatuz gero, jardunaldi eta biltzarretara aurkezten lagunduko du, horien berri izan eta zabaltzeko.

5. Egindako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa

- a) Programa-kontratua indarrean dagoen bitartean, Osasun Ordezkaritzetako teknikariek proiektuen nondik norakoen jarraipena egin ahal izango dute. Horretarako jarraipen txostena eskatu ahal izango dute edo erakundeei bisita egin, proiektuak sustatzen dituzten profesionalen eskutik proiektuak zuzenean ezagutzeko, ordura arte eskuragarri dauden datuekin.
- b) PK2027aren ebaluazio-fasean (2028ko otsailaren 1a baino lehen), proiektuen arduradunek beren emaitzak aurkeztuko dizkiote talde ebaluatzaileari, dagokion fitxa betez. Fitxa hori proiektuen azken ebaluazioa egiteko oinarria izango da, eta egokitzen jotzen duten dokumentazio gehigarria erantsi ahal izango diote.
- c) Azken txostena Osasuneko Lurralde Ordezkaritzara bidaliko da. Proiektuaren arduradunak eta erakunde sanitarioko gerentziak/zuzendaritza medikoak sinatu beharko dute.
- d) Plangintza, Ikerketa eta Ebaluazio Sanitarioko Zerbitzuak ebaluatuko ditu amaierako txostena eta lortutako emaitzak, 2. Taulan ezarritako irizpideei jarraikiz.

2. Taula. Egindako proiektuen amaierako ebaluazio-irizpideak (2028ko otsaila):

Ebaluazio irizpideak	Neurketa	Puntuak
Ekintzen betetzea (gehienez 5 puntu)	% 100ean beteta	5
	%75 < beteta < %100	4
	%50 < beteta < %75	3
	%25 < beteta < %50	2
	Beteta < %25	1
	Ez dira bete	0
Emaitzak eta espero diren helburuekiko egokitasuna (gehienez 3 puntu)	Emaiza osoak eman dira, eta bat datoz espero ziren helburuekin	3
	Emaiza partzialak ematen dira edo ez datoz guztiz bat helburuekin	1,5
	Ez dira ematen	0
Calidad de la documentación aportada (máximo 2 puntos)	Dokumentazioa egokia eta osoa da	2
	Nahikoa, baina osatu gabekoa	1
	Ez da nahikoa	0
Guztira		10

6. Proiektuen balioa Programa-Kontratuan

BUek PK2027an izango duten balioa II. eranskinean kontzeptu horrengatik esleitzen diren puntuen eta proiektu-eskaera onartzeko fasean lortutako balorazioaren ondoriozko pisuaren arabera izango da.

7. Ez betetzeak

Betebeharrak betetzen ez badira, PK2027an proiektuari esleitutako guztizko puntuak murriztuko dira.